

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK



JUAN MARI ABURTO RIKE
BILBOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

HAUTESKUNDE PROGRAMA
BILBO 2019-2023

EAJ-PNV.EUS



juanmariaburto.eus



ejaj
pnv

3.

GAZTERIA, BALIOEN GARAPENA, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

Edozein hirirentzat funtsezkoa da etorkizunera begiratzea; **Bilborentzat** ere bai. Eta **etorkizuna, zer esanik ez, gazteek eraikitzen dute**. Ilusioak, proiektu profesionalak eta garatzeko moduko bizitza-proiektuak dituzten gazteak. Gure hiriko dinamiketan giltzarrizko eginkizuna izan nahi duten gazteak. Hiri hobea eraikitzeko iritziak azaldu eta proposamenak egin nahi dituzten gazteak.

Bestalde, kalitaterik goreneko hezkuntza eta prestakuntza izateak lehentasunezko helburua izan behar du edozein hirirentzat. **Hezkuntza eta prestakuntza dira gure inbertsio nagusia**, etorkizuneko apustu nagusia. Baina apustu horrek ez ditu bakarrik eza-guera teknikoak kontuan hartu behar. Horiekin batera, bizitzarako prestaketa eta balio sendoen garapena ziurtatu behar ditu.

Azken 4 urteotan, garrantzi handiko proiektuak abiarazi ditugu gazteriaren arloan gazteen parte-hartzea sustatu eta errazteko, hiriari gazteen ikuspegia gehitzeko, eta haien beharrak eta itxaropenak hobeto ezagutu eta betetzeko. Hezkuntza arloan, haurreskola publikoen udal eskaintza indartu da ia 100 plaza gehiago bilduz, barrutietako ikasketagelen sarea osatu da ia 1.000 plaza eskainiz azterketa-garaian, eta garrantzi handiko proiektuak gauzatu dira, datozen urteotan Bilbok kalitaterik goreneko unibertsitate eskaintza zabalagoa izan dezan, prestakuntzarik onena eskaintzeko eta gazte talentu berria erakartzeko. Horrez gain, Bilbok, UNICEFek emandako “Bilbo, hiri adiskidetsua hurrekin” deritzon aintzatespena lortu du, bilbotar gazteei laguntzeko garrantzi handiko ekimenak abiarazi ditu, eta **hirian partekatutako balioak bultzatzea** xede duen “Bilbao, Balioen Hiria” funtsezko proiektuaren lehenengo faseari ekin dio.

Esparru honetan **etorkizuneko erronka handi bati** lehentasuna eman behar izatekotan, **Bilbo gazteagoa egitea** izango litzateke erronka hori. Hiria gazte mantendu behar dugu, aukerez eta erakargarritasunez betea talenturik onena atxiki eta erakartzeko, gazteei kalitatezko enplegurako eta duintasunezko etxebizitzako sarbidea bermatuz, beraien bizitza-proiektuak sustatu ahal izateko. Unibertsitatearen pisua handiagoa duen hiria. Prestakuntza etorkizuneko aktibo nagusizat jotzen duen hiria. Horrez gain, nahitaezkoa da familiak babesten eta laguntzen jarraitzea, haurreskolen eskaintza handituz eta bizitza pertsonala, familia bizitza eta lan bizitza uztartzeko behar adinako baliabideak dituen udalerrri bihurtzearen alde apustu eginez.

3. GAZTERIA, BALIOEN GARAPENA, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

3.1- GAZTERIA

HELBURUA

Bilbo “hiri gaztea” bihurtuko duten gazteria arloko politiken udal estrategia antolatzea, gazteei ahalik eta garapen-aukerarik handienak eskainiz eta parte-hartze aktiboa bermatuz.

NEURRIAK

1. Gazteen Ekipamendu Sarea sortzea.
2. “Gaztelonjak” programa mantentzea, gazteen lonjen segurtasunari eta bizikidetzari eusteko.
3. Nerabeen artean aisia eta kirola sustatzeko “GazteKLUBA” programa berria.
4. Udal jarduerari eta hiriari balioa ematen dieten gazte-ekimenak sustatzeko “Ideiak Martxan” programarekin jarraitzea.
5. Gazte eta nerabeekiko informazio eta komunikazio kanalak indartzea: Bilbaogazte webgunea eta sare sozialak.
6. Emantzipatzeko bizi-tza-proiektuak ahalbidetzea, gazteei zuzendutako berariazko etxebizitza eta enplegu politiken bitartez.
7. Nerabe eta gazteen artean aisialdi osasungarria sustatzeko programa udal kiroldegietan.
8. Gazteen boluntarioritza sustatzea, “Europako Elkartasun Kidegoa” delako programa europarraren barruan.

3.2- BALIOEN GARAPENA

HELBURUA

Bilbo balioen hiri bihurtzea, herritarrek nahiz hiriko eragile eta enpresek gizarte-kohesioan eta garapen iraunkorrean aurrera egiten lagunduko duten balioak partekatu eta bete ditzaten.

NEURRIAK

1. **“Bilboko Balioen Agirian”** bildutako balioak udal jarduera osoan ezartzea, bereziki udal planetan eta umeekin nahiz nerabeekin lotutako proiektuetan. Agirian bildutako balioak:
 - **Giza Eskubideen Errespetua, Justizia Soziala, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna, Elkartasuna.**

3. GAZTERIA, BALIOEN GARAPENA, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

- **Aniztasuna/Inklusioa, Konpromisoa, Ingurumenaren arloko Jasangarritasuna.**
 - **Parte-hartzea, Konfiantza, Sormena, Elkarbizitza, Nortasuna, Esfortzua.**
 - **Erantzunkidetasuna, Zintzotasuna, Ilusioa eta Osasuna.**
2. Enpresa eta elkarrekin gehiago “Bilboko Balioen Agiriarekin” konprometi daitezela lortzea, balioen bat edo batzuk auzoan, barrutian zein hiri mailan garatuz sustatzen dituzten proiektuak aitotuz.
 3. “Bilbao, Balioen Hiria” proiektua parte-hartzearen bitartez garatzen jarraitzea, horri buruzko Batzordea indartuz eta horren jarduerak ezagutzera emanez.
 4. Bilbo nazioartean Balioen Hirizat posizionatzea nazioarteko foro eta sareetan.
 5. Hiriko Memoria Historia berreskuratu eta ezagutzera emango dela bermatzea.
 6. “Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Bilboko Topaguneari” jarraipena ematea, adiskidetzaren aldeko bidean eta biktimen eskutik aurrera egingo duen adostasun-esparru bezala.
 7. Udal ekimen guztiak Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuen eta 2030eko Agendaren eskakizunetara egokitzea.

3.3- HAURRAK ETA FAMILIA

HELBURUA

Adingabeei, nerabeei eta hauen familiei arreta pertsonalizatua eta laguntza-zerbitzuak eskaintzea, arrisku-egoerak prebenitzeko detekzio goiztiarrean ahalegin berezia eginez.

NEURRIAK

1. “Bilboko Ume eta Nerabeen II. Udal Plana” landu eta abian jarritzea, ume eta nerabeen eskubideak garatzea xede duten neurriak bultzatuz eta herritarren lankidetzara eta erakundearen arteko koordinazioa dinamizatuz politika hauen etengabeko hobekuntza eta garapenerako bide bezala.

3. GAZTERIA, BALIOEN GARAPENA, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

2. “Umen eta Nerabeen Udal Kontseilua” udalerriko ume eta nerabeen parte-hartze eta ordezkartzarako organo iraunkor bezala indartzea.
3. Jardunbide egokiak partekatzeko eta ikasteko esparruak sortzea hiria umeen ikuspegitik eraldatzeko asmoz, “Haurren Hirien Sarean” bildutako esperientzia finkatuz.
4. Arrisku-egoeran dauden ume eta nerabeentzako arreta eta babesaren arloan, gizarte eta hezkuntzako programa eta zerbitzuak zein izaera psikosozialekoak eta asistentzialekoak garatu eta finkatzea, betiere babesgabetasunezko arrisku-egoeren prebentzioa eta detekzio goiztiarra helburutzat hartuz, Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzuarekin nahiz Eusko Jaurlaritzako osasun eta hezkuntza sistemekin batera landutako balorazio diagnostiko egokiaren bitartez.
5. Bilbo kontziliazioaren arloko erreferentziazko udalerrri bihurtzearen alde apustu egitea, hiriko eragileek partekatutako konpromisotik abiatuta.
6. “Red Denbora” ekimenean parte hartzen duten enpresetan kontziliazioa sustatzeko abiarazitako jardunbide egokiak zabaltzea.
7. Etxeko zein zaintza lanetan egiazko erantzukidetasun handiagoa lortzearen aldeko programak indartzea.

3.4- HEZKUNTZA

HELBURUA

Bilbon hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza bultzatzea, herritarrekiko eta hezkuntza-komunitatearekiko elkarrizketari arreta berezia emanez.

NEURRIAK

1. Haurreskoletako plaza-kopurua handitzea hiriko hainbat auzotan.
2. Legeriak Eusko Jaurlaritzari aitortzen dizkion eskumen zabalak ezagututa ere, ikastetxe publikoak hobetzeko inbertsioak egitea eta mantentzea, hiriko hezkuntza instalazioek kalitate egokia izan dezaten.

3. GAZTERIA, BALIOEN GARAPENA, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

3. Familiekiko elkarrizketa bideak indartzea Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaz, hezkuntza arloko gabeziei eta beharrei erantzun egokia emateko.
4. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan jardutea “Bilboko Eskola Mapa” eguneratzeko.
5. Bilboko Lehen Mailako ikastetxe publikoetarako 2019-2023ko Inbertsio Plana lantzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin batera.
6. Gazteei “ikasteko” plaza-kopururik handiena bermatzea, azterketa-garaietara egokitutako ordutegi malguak eskainiz.
7. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardutea, eskolaz kanpoko ordutegietan ikastetxe publikoetako instalazioetan hezkuntza eta kirol jarduerak garatu ahal izateko.
8. Gizarte eta hezkuntza arloko laguntza-tailerren programa handitzea.
9. Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartean (AICE) modu aktiboan parte hartzea eta “Hiri Hezitzaileen Gutunean” ezarri eta adostutako konpromisoak betetzea.
10. Gazteen artean berdintasunezko harreman-ereduen eraikuntza sustatzea, “Ikastetxeetan Indarkeria Matxista Prebenitzeko eta Berdintasuna Sustatzeko Programa” bultzatuz.

3.5- UNIBERTSITATE ETA EZAGUTZA HIRIA

HELBURUA

Gaikuntza eta pertsonen, enpresen eta hiriko eragile garrantzitsuen arteko ezagutza sustatzea, eta **Bilbo nazioartean talenturik onena erakartzeko gaitasuna duen kalitatezko prestakuntza-eskaintzaz hornitutako hiri bezala posizionatzea.**

NEURRIAK

1. Bilbon unibertsitate arloko zein lanbide-heziketako bikaintasunezko prestakuntza-eskaintza berria finkatzeko esparru fisikoak definitu eta erraztea.

3. GAZTERIA, BALIOEN GARAPENA, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

2. UPV/EHUren Medikuntza Fakultate berria garatzen laguntzea.
3. Hiriko unibertsitate-prestakuntzaren eskaintzari lotutako ikerketa-jarduerak garatzeko esparru fisikoak definitu eta erraztea.
4. Bilboko gazteen eta enpresen etorkizunaren gaineko inpaktua izango duten hezkuntza-politikak diseinatzeko foro instituzionaletan modu aktiboan parte hartzea.
5. Hirian finkatutako unibertsitateekiko koordinazio eta lankidetzarako foro iraunkorra eratzea.
6. Bilbo unibertsitate-hiritzat duen posizionamendua indartzea, Estatuko zein nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasuna izan dezan, bereziki gradu ondoko eta master mailako ikasketetan eta izaera tekniko eta teknologikoko gaietan.
7. Enpresaren eta unibertsitatearen arteko interakzioa erraztuko duen ekosistema sortzea, hirian prestakuntza-eskaintza berritzailea eta ezagutza trinkoa tarteko duten enpresa-ekimen berriak ezartzeko.
8. Bilbok udan unibertsitate-jarduerak (Udako Ikastaroak) erakartzeko duen gaitasuna sendotzea.

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK